



## Atzerri

### Mikel Anza

Lekukotasun bat da eta eleberri historikotzat jo daiteke, baina ez da denboran urrun gelditzen diren garaietan oinarritutako istorio horietako bat, historia garaikidean oinarritutako istorio bat baizik, non protagonistek, eta batez ere nobelako protagonistak –Anzak berak– euren bizitza markatu duten eta –dakigunez– erbestera edota kartzelara eraman zituzten egintza eta gertaera zehatz batzuk kontatzen dizkiguten.

Lekukotasun gogorra da, hunkigarria ere bai, eta, oro har, gauza asko argitzen ditu. Protagonistaren gizatasunaren berri ere ematen digu; izan ere, Gerra Zibilaz geroztik eta gure egunotaraino, euskaldunen arestiko historian bereziki etengabe presente egon den kolektibo bat errepresentatzen baitu: erbesteratuen kolektiboa, hain zuzen.

Eta giza lekukotasunaz hitz egiten dudanean, esan nahi dut –bera (Anza edo munduko beste edozein erbesteratu) egoera horretara eraman zuten arrazoiak albo batera utzita, eta batzuentzat heroia eta beste batzuentzat *villanoa* den albo batera ere utzita–, Anzak bere istorioa kontatzen du ikuspegi ikaragarri humano batetik. Azken finean, pertsona bakoitzak bere istorio propioa du. Eta ondo dago pertsona baten historia haren ahotik ezagutzea. Ni ez naiz egia ezagutzearen beldur. Eta nire ustez, gutxitan topo egingo dugu erbesterari, klandestinitateari, atxilo edo torturatua izatearen beldurrari buruzko hain lekukotasun gizatiar eta egiazko batekin... Euskal gatazkaren alderdietako baten lekukotasun garrantzitsua da, oso; eta mota horretako lekukotasunei bizkarra ematea, egiari (egiaren parte bati) bizkarra ematea da; eta horrela jokatzeko duenak auskalo zer ezkutatu nahi duen...

Anzaren euskara, liburu honetan behintzat (eta irakurri diodan bakarra da) “sinplea” da, ez dago erretorika handirik, baina Anzak ez du horren premiarik, ez du hori bilatzen; gainera, Anzak istorio txiki asko ditu kontatzeko, eta ez dira fikziozko istorioak, hark berak bizi izandako gauzak baizik, eta horregatik, haren diskurtsoa –nolabait esateko– gertaera jakin batzuk gogoratzen dituen batena da, beste norbaiti ahoz kontatuko balitz bezala, zeren idatzizko idazkera bat sortzeko ahalegina ez baita oso nabarmena, baina esan bezala, bai eraginkorra, nire ustez. Harira doa zuzen-zuzenean. Benetako istorioak ditu kontatzeko, eta beraz, idazkeraren alderdi erretorikoa bigarren maila batean gelditzen da. Hortaz, prosa nahiko kolokiala da, protagonista –Anza– bere buruarekin edo balizko entzule batekin hizketan ariko balitz bezala, ahozko mailatik hurbil, idazkerari dagokionez.

Batzuetan, Anzaren espresioa apur bat abstraktu bihurtzen da. Hori gertatzen denean, ia beti nahita gertatzen dela esango nuke. Nire ustez, horrek liburuko protagonistaren errealtatea baino ez du islatzen, hau da, erbesteratua bat-batean erabat ezezaguna gertatzen zaion ingurune baten erdian suertatzen da, txundigarria egiten zaio dena, bere erdigunea galdu du, lekuz kanpo dago, lehengo bizitza desagertu egin zaio, lagunak, errutina... dena joan zaio pikotara. Ezezaguna zaion hizkuntza batean hitz egiten dioten pertsonen esku dago; zergatik laguntzen dioten ere ez da guztiz ulertzerira iristen zenbaitetan; nahiko surrealista da egoera; eta, ziur aski, ukitu absurdu horrek idazkera ere –Anzaren espresioa ere– harrapatzen du, bizi duen egoeraren isla –eta ez besterik– izateraino.

Parisen erbesteratu gisa bizi izandako esperientziaren kontakizuna benetan polita eta oso entretenigarria da. Ez dakit, beharbada hiztegi hori (“polit”, “entretengarri”) erabiltzea baliteke nire aldetik apur bat *friboloa* izatea... Azken finean, badakigu istorio horren guztiaren atzean zer dagoen, ezta?: bizipen pertsonal gogor bat, protagonistari ondorio latzak ekarri dizkiona; beraz, ez da fribolizatu behar; baina, egia da, nobelako zati hori benetan polita eta entretenigarria da.

Bestalde, lehen aipatu dudan idazkera absurdua oso nabaria da kartzelara ostera ere itzultzen denean, baita ihesaldiaren ondorengo egunetan ere. Baina absurdu linguistiko hori nahita bilatutakoa da, erabat; eta nire ustez, presoaren egoera argi eta garbi islatzen du: zigor-ziegetan bolada luzeak igaro behar izatea, inorekin hitz egin gabe, eta abar, eta abar. Presoa sufriaraztea eta, finean, presoa suntsitzea beste helbururik ez duten neurri kartzelarioak dira, eta hori guztia Anzak hizkuntzaren bidez ere espresatzen du. Geroago, ihes egiten duenean eta klandestinitatean bizitza “normala” egiten hasten denean, berriro berreskuratzen du bere betiko adierazpidea (hizketa-modu normala = bizimodu normala).

Liburuaren azken zatia oso interesgarria egiten da eta batez ere interpretazio askotarako bidea zabaltzen du. ¿Zergatik uzten dio kontuz ibiltzeari? Zergatik uzten ditu bertan behera segurtasun-neurriak? Niretzat nahiko garbi dago: ezin duelako bizitza osoa ihes egiten igaro, bizitza normala berreskuratzea ezinbesteko bihurtzen zaiolako, bera estimatuko duten auzokoak eta berak estimatuko dituen auzokoak behar dituelako, eta ogia egunero denda berean erosi! (eta horrela, inguruan dituen pertsonekin azalezko baina ezinbesteko harreman bat eratu!), bere ondoan emazte bat behar duelako zeinari esan bere benetakoa izena zein den, seme-alabak izateko desioa pizten zaiolako... Hau da, klandestinitateak erbesteratuari ukatzen dion guztia edukitzeko premia lehertu egiten da Anzaren baitan. Jada ez da gaztetxo bat. Gorputzak eta buruak eskatzen dioten “hori” behar du. Eta orduan, hori dena “eraikitzen” ari denean, Star Gate-ko atea zabaltzen da eta iragana –polizia-uniformeaz mozorroturik– trumilka sartzen zaio egongelara, haren ametsari bat-bateko bukaera emanez...

Balio handiko kontakizuna da. Askotan esan ohi da errealitateak fikzioa gainditzen duela, eta benetan uste dut honako hau kasu horietako bat dela... 40 edo 50 urte barru batxilergoan derrigorrez egin beharreko irakurketa: liburu ona delako, ondo kontatuta dagoelako, eta euskaldunoi laguntzen digulako dagokigun unibertso txiki-handia hobeto ulertzen eta bertan gure burua hobeto kokatzen.